

Familia agurgarriak:

Besarkada bat eta ikasturte berri honetarako gure desiorik onenak bidaltzen dizkizuegu. Era berean, berriro ere ikastetxean eta elkarren artean bultzatzen dugun proiektuan jartzen duzuen konfiantza eskertu nahi dizuegu.

Ikasturte honen hasieran "Ikastetxe bat baino gehiago" argitalpena helarazten dizuegu, oraingoan Hezkuntza Helburuak eta Educa+#Heziago proiektua ardatz dituena. Lortu nahi dugun ikasle mota eta, ikastetxea garen aldetik, hezkuntza, gizarte eta eliz esparruetan (hezkuntza helburuak) egiten dugun ekarpena zehaztea ezinbestekoa da, berrikuntza pedagogiko arrakastatsua lor dezagun (Educa+#Heziago).

Ildo honetatik abiatuta, **metodologiaren berrikuntza eta ebaluazio ereduaren aurrerapausu garrantzitsuak** emango ditugu ikasturte honetan, aipatutako helburuak lortzeko asmoz: proiektuetan oinarritutako ikasketa, gailu mugikorren ezarpena gelan, elkarlana, ikasketa esanguratsua, hezkuntza harremana eta irakasleen eginkizuna... Eta .Hezkuntza Sailaren eta Emaus eskolapioen Barrutiaren eskutik datozkigun **proposamen onenekin batera** egiten dugu: gaitasunetan oinarritutako ikuspegia, "Suma y Sigue" Proiektua, teknologia heldutasun eredu, Sare-Hezkuntza, Heziberri 2020...

Ondo dakigun bezala, **gure ikastetxearen kalitate eta bikaintasuna** eskaintzen ditugun ekintzen aniztasun eta aberastasunean, hezkuntza komunitatearen giro ederrean, kristau komunitate eskolapioaren bizitasunean eta hau guztiaren arteko koordinazio, berrelikadura eta elkartasunean **ere oinarritzen dira**. Alderdi hauek zaintzen eta hobetzen jarraituko dugu.

Baina, batez ere, daukagun **altxorrik handiena** ikastetxeari bizitza ematen dion gutariko bakoitzak osatzen du: ikasleak, irakasleak, familiak, bolondresak, laguntzaileak. Hauentzat guztiontzat parte hartzeko eta laguntzeko proposamen berriak egongo dira.

Ikasturte honetan, 2017an Calasanzen Jubileu Urtea ospatuko dugula gertaera garrantzitsua izango da, Eskola Pien **400 urteak eta Calasanzko Jose Deunaren kanonizazioaren 250 urteak** direla eta. Eskertuta egoteko eta aipatutako jubileu urtea poztasunez ospatzeko nahikoa arrazoi ditugu. Denok partekatuko dugun leloa "Hezi, iragarri eta aldarazi" izango da, Calasanzen eta misio eskolapioaren hiru helburuak gogora ekartzen dituena.

Aurreko ikasturtearen amaieran **Amaya Lekunberri**, Pabloren orde, **Zuzendari titular berria** izango dela eta **Cecilia Alcibar-Arechuluaga**, Amayaren orde, **Zuzendari Akademiko berria** izango dela adierazi genizuen sare sozialetan. Bestalde, **Xabier González Kirol-koordinatzaile berria** izango da, Alberto Tobalinaren orde. Aipatutako guztiei beti prest egotea eskertzen diegu eta beren ardura berrietan onena opa diegu.

Sare sozialak (Facebook, Twitter, Canal YouTube...), ikastetxearen Web orria (www.bilbao.escolapios.emaus.org), Itaka-Escolapios (www.itakaescolapios.org) eta Kirol Elkarte (www.kirolak.bilbao.escolapios.emaus.org), baita beste plataforma digital guztiak ere (Gela Birtuala, Alexia...), ikastetxearen bizitzaz ondo informaturik egoteko bide egokiak dira.

Gurekin harremanetan jartzeko ohiko bideak zabalik dituzuela gogoratu nahi dizuegu: elkarrizketak, telefonoa, iradokizun-gutunontzia (web orrian zein ikastetxeko sarreran), posta elektronikoa, une informalak, ...

Azkenik, eskolapioen hezkuntz **komunitate eta komunitate kristauan parte hartzeko** gonbidapena luzatu nahi dizuegu. Azken honen eukaristia 7:00etan ospatzen da larunbatero.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik. Agur bero bat:

Amaya Lecumberri, Zuzendari Titularra
Cecilia Alcibar-Arechuluaga, Zuzendari Akademikoa

Estimadas familias:

Os enviamos un abrazo y nuestros mejores deseos para este nuevo curso. Igualmente os agradecemos una vez más la confianza que depositáis en el colegio y en el proyecto común que impulsamos entre todos.

Comenzamos el año compartiendo con vosotros una nueva publicación de “Más que un colegio”, en esta ocasión centrada en las **Finalidades Educativas y el Proyecto Educa+#Heziago**. Definir el perfil del alumnado por el que apostamos y la aportación que como colegio hacemos en los ámbitos educativos, sociales y eclesiales (finalidades educativas) es indispensable para enmarcar con éxito la innovación pedagógica (Educa+#Heziago).

Desde este marco seguiremos dando **pasos importantes este curso en la renovación de metodologías y formas de evaluación** de cara al logro de dichas finalidades: aprendizaje basado en proyectos, implantación de dispositivos móviles en el aula, trabajo cooperativo, aprendizaje significativo, relación educativa y rol del profesorado... Y lo hacemos **en línea con las mejores propuestas** que también nos llegan desde el Departamento de Educación y la Provincia escolapia de Emaús: enfoque de competencias, Proyecto “Suma y Sigue”, modelo de madurez tecnológica, Sare-Hezkuntza, Heziberri2020...

Como bien sabemos, **la calidad y excelencia de nuestro colegio también se basan** en la pluralidad y riqueza de actividades que ofrecemos, en el buen ambiente de comunidad educativa, en la vitalidad de la comunidad cristiana escolapia y en la buena coordinación, retroalimentación y comunión de todo ello. Seguiremos cuidando y mejorando estos aspectos.

Pero, sobre todo, **nuestro gran tesoro** somos cada una de las personas que damos vida al colegio: alumnado, profesorado, familias, voluntarios, colaboradores. Para todos y todas habrá nuevas propuestas de participación y colaboración.

Un hito importante de este curso es que en 2017 celebramos un Año Jubilar Calasancio con motivo de los **400 años de las Escuelas Pías y los 250 años de la canonización de San José de Calasanz**. Tenemos sobrados motivos para estar agradecidos y celebrar dicho año jubilar con gran alegría. El lema que compartiremos todos será “Educar, anunciar y transformar” que hace alusión a los tres objetivos de Calasanz y de la misión escolapia.

A finales del curso pasado os anunciamos en las redes sociales que **Amaya Lecumberri será la nueva Directora Titular** en lugar de Pablo Santamaría, y **Cecilia Alcibar-Arechuluaga la nueva Directora Académica** en lugar de la propia Amaya. Por otro lado, **Xabier González será el nuevo coordinador de Deportes**, en lugar de Alberto Tobalina. Agradecemos a todos ellos su disponibilidad y les deseamos lo mejor en sus nuevas responsabilidades.

Las redes sociales (Facebook, Twitter, canal YouTube...), la Web del colegio, (www.bilbao.escolapio.semaus.org), Itaka-Escolapios (www.itakaescolapios.org) y Agrupación deportiva (www.kirolak.bilbao.escolapiosemaus.org), así como demás plataformas digitales (Aula Virtual, Alexia...) son buenos canales para estar bien informado de toda la vida del colegio.

Os recordamos que podéis poneros en **contacto con nosotros a través de los diversos canales habituales**: entrevistas, teléfono, buzón de sugerencias (en la misma página web y en la entrada del colegio), correo electrónico, momentos informales,...

Os invitamos por último a **participar de la vida de la comunidad educativa y cristiana escolapia**. La eucaristía de ésta última se celebra los sábados a las siete de la tarde.

Gracias por vuestro apoyo y recibid un saludo cariñoso:

Amaya Lecumberri, Directora Titular
Cecilia Alcibar-Arechuluaga, Directora Académica